

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5748

107/2022 EBAZPENA, abenduaren 13koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Repsol Fundazioarekin hiri-berroneratze integralari buruzko lan-foro bat sortzeko sinatutako hitzarmena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu du hitzarmen hori, eta behar bezalako publizitatea emateko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Repsol Fundazioarekin hiri-berroneratze integralari buruzko lan-foro bat sortzeko sinatutako hitzarmena. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 13a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2022ko abenduaren 29a, osteguna

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN ABENDUAREN 13KO 107/2022
EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO
OROKORRAREN (LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN,
ETA EKONOMIAREN GARAPEN, IRAUNKORTASUN ETA INGURUMEN SAILAREN
BITARTEZ) ETA REPSOL FUNDAZIOAREN ARTEKOA, HIRI-BERRONERATZE
INTEGRALARI BURUZKO LAN-FORO BAT SORTZEKO

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 7a.

BILDUTA:

Alde batetik,

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bitartez. Sail horiek Ignacio María Arriola López jaunak eta María Aranzazu Tapia Otaegi andreak ordezkatzeko dituzte, hurrenez hurren, sailburu eta sailburu gisa.

Beste alde batetik,

Repsol Fundazioa, nazionalitate espainiarreko fundazioa, egoitza soziala Madrilen, Méndez Álvaro kalea 44, 28045. Fundazioen Erregistroan inskribatuta dago, 263CUL zenbakiarekin eta G-81251860 identifikazio fiskaleko zenbakiarekin. Antonio Calçada de Sá jaunak ordezkatzeko du, adinez nagusia, eta Portugalgo nazionalitatea du. Repsol Fundazioaren izenean eta hura ordezkatzeko jarduten du, ahaldun gisa, 2019ko urtarrilaren 17ko erabakiak publiko egiteko eskrituraren arabera. Eskritura hori Jaime Recarte Casanova Madrilgo notarioak egiletsi zuen, 223 protokolo-zenbakiarekin.

Bi alderdiek («alderdiek» elkarrekin eta alderdiek haietako bakoitzeko), zein ordezkartzan jarduten duten, elkarri lankidetzaren hitzarmen honetatik eratorritako konpromisoak hartzeko gaitasuna aitortuz,

AZALTZEN DUTE:

I.– Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari dagozkio, besteak beste, hiri-berroneratzea, lurralde-antolamendua, hirigintza, eraikuntzaren berrikuntza sustatzea, birgaitzea, eraikuntzaren kalitatea, iraunkortasuna eta irisgarritasunaren sustapena (11/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena).

II.– Bere aldetik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bere eskumenen artean ditu ingurumen-politika, klima-aldaketaren aurkako borroka, trantsizio energetikoa, berrikuntza, teknologia eta ekonomia zirkularra (68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena).

III.– Repsol Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta bere ondarea modu iraunkorrean eragiten zaio bere Estatutuen 5. artikuluan zehaztutako interes orokorreko helburuak gauzatzeari, eta bere jarduerak garatzen dituen sozietateen hobekuntza iraunkorrekiko konpromisoaren erakusle dira, besteak beste, ingurumenarenean, garapen jasangarritik eta

gizarte-erantzukizunetik abiatuta balio-sorrera arakaturik, eta gizarte-eremuan babesgabeen bizi-baldintzak hobetzen lagunduz.

IV.– Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, eta, zehazki, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak, lehentasunezko helburu gisa du, lan-agendaren barruan, Hiri Berroneratze Integrala, nagusiki, auzo kalteberetara bideratua, hau da, estrategia-rik egokiena eta politika publikoekin bat datorrena, Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin, Espainiako eta Europako 2030 Agendarekin, Euskadiko Bultzatu 2050 Agenda Urbanoarekin, eta Garapen Jasangarriko Helburuekin, beraien edukien zati garrantzitsu bat Auzo Kalteberetako Hiri Berroneratzearen ekimen integral eta zeharkako honetan islatuta ikusten dutenak.

Ildo horretan, Sail hau lankidetzara publiko-pribatuko proiektu estrategiko bat gidatzen ari da. Proiektu horren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-berroneratzea eta etxebizitza-parkearen birgaitzea bultzatzea eta sustatzea, etxebizitza-parke jasangarri baterantz aurrera egiteko neurri baliozkotzak ezarriz, eta Administrazio honen politika eta lehentasun publikoekin bat datorren inpaktu sozial, ekonomiko eta ingurumeneko potentziala nabarmenduz.

Europako Batzordearen Horizon 2020 programatik datorren Europako finantziaketa izanik, HIROSS4all proiektuaren barruan (home integrated renovation one, stop-shop for vulnerable districts) Opengela Programa garatu da (Opengela Proiektua edo «proiektua»), eta horri esker, proiektuan esku hartzeko eremu gisa sartutako bi auzoetan etxebizitzak birgaitzeko tokiko bulegoen proba pilotu bat jarri ahal izan da abian, Eibarko Txontan, eta Bilboko Otxarkoagan. Opengela Programan diseinatutako irizpideei eta esku hartzeko ereduari jarraituz, beste jarduerara pilotu batzuk garatzen ari dira beste eremu batzuetan: Aramotzen (Durango) eta Basaundi Bailaran (Lasarte). 2022an Ezkerraldea-Meatzaldea eta Oarsoaldeko beste udalerri batzuetan esku-hartzeak hasiko dira.

Ikuspegi honekin, programak hiri-berroneratzearen sektorea eraldatzen lagundu nahi du, eta sektore horrek ekonomiaren aldetik sendoa, ingurumenaren aldetik jasangarria eta sozialki bidezkoa den susperraldi baterako trankizio-elementu gisa jardun dezan, foku berezietan tokiko enplegu iraunkorra sortzean, prestakuntza indartzean, auzoen suspertze ekonomiko eta sozialean eta hauen trankizio digitalean, deskarbonizazioan eta energia- eta ingurumen-eraldaketan.

Helburu horiek betetzeko, ezinbestekotzat jotzen da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin batera gobernatzea; izan ere, haren eskumenen artean daude, besteak beste, trankizio energetikoa, berrikuntza, ekonomia zirkularra eta ingurumen-politikak, eta zuzenean eragiten die hiri berroneratzeko estrategia horren edukiei.

Administrazioak proiektu hori bultzatzea erabat bat dator 2030/Euskadi Basque Country Estrategian definitutako helburuekin. Estrategia horren helburua da, trankizio energetikoa bultzatzeaz gain, Garapen Jasangarriko Helburuen hainbat helburu zehatz ere bultzatzea, Estrategia horrek Administrazio Publiko honen ekintzetara eramateko konpromisoa hartzen baitu. Era berean, ezin hobeto dator bat Euskadiko Hiri Agendatik (Bultzatu 2050) datozen jarraibideekin. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-errealitateak epe ertain eta luzean izango dituen erronka nagusiak zehazten dira.

V.– Repsol Fundazioak, sustatzen dituen interes orokorreko helburuen barruan, hirietako bizi-kalitatea hobetzen lagundu nahi du, hiri-berroneratzearen bidez, gaiari buruzko ezagutzak eta know-how-a emanez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan hiri-berroneratze integraleko proiektuak sustatzeko eta bultzatzeko.

Interes horren ondorioz, Repsol Fundazioak, Repsol filialaren bitartez (Impacto Social), partaidetza minoritarioa hartu zuen Global New Finance, S.L. konpainian, 2019ko abenduan. Europako eremuan eraikinen birgaitzea bultzatzea eta herritar guztientzat irisgarri bihurtzea helburu duen

kapital-sozietatea da (GNE Finance), bere jarduketan gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-inpaktua maximizatuz.

Era berean, Repsol Fundazioak katedra garrantzitsuak sustatzen ditu, hala nola Trantsizio Energetikoko Katedra, besteak beste Bartzelonako Unibertsitatearekin eta Nafarroako Unibertsitatearekin (Donostiako campusean), edo Trantsizio Energetikoko Gela, Euskal Herriko Unibertsitateko Garapen Zientifiko eta Sozialerako eta Transferentziarako Errektoreordetzarekin batera; hitzaldi-zikloak eta hainbat ekitaldi antolatzen ditu birgaitzeari bultzada emateko, trantsizio energetikoaren eta ekonomiaren susperraldiaren motor gisa.

Era berean, aliantzak egiten ditu arlo horretan hainbat erakunderekin, eta nabarmentzekoak dira Santa María la Real Fundazioa, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu eta independentea, hiru ardatzetan oinarritutako proiektuak eta ekimenak abian jarriz gizartea hobetzeko lan egiten duena: pertsonak, ondarea eta paisaia, pertsona kalteberen enplegarritasuna sustatzeko aliantza.

VI.– Urriaren 6an argitaratu zen BOEn urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko etxebizitzak eta etxebizitza sozialak birgaitzeko laguntza-programak arautzen dituen (853/2021 Errege Dekretua).

853/2021 Errege Dekretu honen bidez, etxebizitzak birgaitzeko eta etxebizitza sozialak eraikitzeko zenbait laguntza-programa arautzen dira, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparru orokorraren barruan, eta, bereziki, C02.I01 «bizitegi-inguruneetan suspertze ekonomiko eta sozialerako birgaitze-programa» eta C02.I02 «energia-aldetik eraginkorrak diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzeko programa» inbertsioei dagokienez, «Espainiako Hiri Agendaren inplementazioa: hiria birgaitzeko eta berroneratzeko plana» izeneko 2. osagaiaren barruan daude biak.

853/2021 Errege Dekretu honetatik datozen laguntzak aukera paregabea dira gure lurralde osoan eraikinen birgaitzea eta hiri-berroneratzea modu integralean bultzatzeko.

VII.– Azalpen-aurrekariak agerian uzten dute Alderdien arteko lotura-puntua, bakoitza bere ekarpenek eta alde aurreko esperientziek bermatua; izan ere, bi alderdien arteko lankidetzak eta bitartekoak bateratzea eragiten dute, tresna horren bidez, lankidetzak, analisi-, gogoeta- eta proposamen-espazio bat sortzeko, eta, horren bidez, ikuspegi, sentsibiltate eta erantzukizun guztiei babesa emateko, Berroneratze-politika integral horiek modu sozializatuagoan ezartzearen ondorioz atera daitezkeenak, eta honekin, Opengela Programa eta lortu nahi diren helburuak betetzeari eustea.

VIII.– Azaldutakoaren arabera, alderdiek Hiri Berroneratze Integralari buruzko Lan Foro bat sortzeko interesa partekatzen dute, Euskadiko hiri-berroneratzea modu eraginkorrean eta iraunkorrean hedatzen lagunduko duena, hiri-berroneratzearen arloan iragandako jarduketan emaitzak ebaluatu eta aztertzeko eta eremu horretan jarduteko estrategiak proposatzeko betebeharrarekin, gai hori garatzeko adostutako ibilbide-orria ezartzen duten eragileen parte-hartzearekin, lankidetzarekin eta inplikazioarekin.

IX.– Azaldutako guztiagatik, aldeek lankidetzak-hitzarmen hau («Hitzarmena»), sinatu nahi dute, honako baldintza hauen arabera:

AKORDIOAK

1.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da aldeek arteko lankidetzaren oinarritzko zehaztapen eta baldintzak arautzea, aurreko azalpenetan deskribatutako helburuak lortzen laguntzeko, Hiri Berroneratze Integralari buruzko Lan Foroa sortuz («Foroa»).

Hitzarmen honen bidez, sektore anitzeko, maila anitzeko eta lankidetzak publiko-privatuko lantalde gisa eratzen da Foroa, kontsultarako, diagnostikorako, hausnarketarako, eztabaidarako eta proposamenak egiteko gune egituratu gisa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak hiri-berroneratze integralaren arloan abian jarritako proiektuak aztertze, jarraitze eta baloratze, besteak beste, Opengela proiektua, bai eta jardunbide egokiak sustatzeko eta trukatzeko ere, eta ekitaldiei buruzko informazioa eta Foroaren emaitzak hedatzeko baita ere.

2.– Foroaren zereginak.

1.– Lehenengo estipulazioan jasotako helburu orokorra lortu ahal izateko, Foroak honako eginkizun hauek beteko ditu:

i) Sektore anitzeko, maila anitzeko eta zeharkako ikuspegitik, eta parte-hartzaile bakoitzak Hiri Berroneratze Integralean izan dezakeen esperientzian oinarrituta, esparru horretan garatzen diren politika publikoak hobetzeko kontuan hartu beharreko beharrak, gabeziak eta aukerak zehaztea.

ii) Jarraipena egitea, estrategikoki eta analitikoki hausnartzea Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak abian jarritako ekimenetan antzemandako arazoak identifikatzeko, eta lortu nahi diren helburuekin bat datorren Hiri Berroneratze Integralean aurrera egiteko erronkak eta irtenbideak proposatzea.

iii) Lankidetzak sustatzea, bai Foroaren barruan bertan, bai erakunde adituekin eta ikerketaren arloko beste erakunde batzuekin batera, Hiri Berroneratze Integralaren errealitate berriari buruzko azterlana bultzatzeko, 2030 Agendaren eta Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren testuinguruan.

iv) Erakundeak eta gizartea hiri-berroneratze integralaren arloan komunikatzen eta iritziak eta informazioa trukatzeko laguntzea.

v) Hiri Berroneratze Integralaren eremuan jarduerak garatzen dituzten beste foro eta lan-gune batzuekin koordinatzea eta, hala badagokio, horiekin lankidetzan aritzea.

2.– Urtero, Foroak kudeaketa-txosten bat egingo du, hurrengo ekitaldian garatu beharreko helburu eta atazekin, eta aurreko ekitaldiko helburuen betetze-mailari buruzko balorazio-txosten bat, hitzarmen hau sinatu duten alderdiei helaraziko diena. Alderdi horiek baliozkotuko dute Foroak egindako lanen egokitasuna, lortu nahi diren helburuetan oinarrituta.

Horretarako, alderdi sinatzaileek Jarraipen Batzordea eratuko dute, eta lehendakariak deitu beharko du, gutxienez urtean behin, lehenengo hiruhilekoaren barruan. Lehendakariak foroaren deialdi bera egingo du.

3.– Foroaren osaera.

Foro honen helburu egituratzailea alderdien topagune bat ezartzea da, baita beren eskumen, erantzukizun, jarduera-arlo edo interesetatik Hiri Berroneratze Integraleko politika publikoekin lankidetzan aritzen diren edo jardun nahi duten eragile guztiena ere, eta, beraz, Foroaren osaerak irekita utzi beharko du bertan integratzeko interesa adierazten duten instituzio, elkarte, entitate, eragile edo erakundeen partaidetza-oinarri zabal bat sortzeko aukera.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdien konpromisoa da, bakoitzak bere kudeaketa-, jarduera- edo eragin-eremuan, Foroa osa dezaketen erakunde, elkarte, entitate, eragile edo organismoak foro horretara erakartzeko lan egitea.

Bi alderdi sinatzaileekin batera, Hiri Berroneratze Integraleko Foroan parte hartu ahal izango dute honako erakunde hauek:

- Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk edo mendeko erakundeak.
- Foru-aldundiak.
- EUDEL.
- Abian diren Hiri Berroneratze Integraleko proiektuen parte diren udal zehatzak, laster hasiko direnak edo planteatutako izaera integraleko esku-hartzeak bultzatu nahi dituztenak.
- Unibertsitatea, azterlanetarako eta ikerketarako zentro edo erakunde espezifikoak.
- Hitzarmen honen xedean parte hartzen duten elkarteak, klusterrak eta irabazi-asmorik gabeko bestelako erakundeak.
- Gizarte-eragileak.

Foroan parte hartu ahal izateko, nahikoa da erakunde interesdunak idazki bat aurkeztea Lehendakariari, foroan parte hartzeko borondatea adierazteko eta foroan sartzeko eskatzeko. Eskaera hori Foroko gainerako kideei helaraziko zaie, eta hurrengo deialdian gai-zerrendari gehituko zaio sartzeko proposamena, onar dezaten.

4.– Foroaren lehendakaritza.

1.– Foroaren lehendakari izango dira, sei hilabetez eta txandaka, hitzarmen hau sinatu duten bi sailtako eta Repsol fundazioko ordezkariak. Eratu ondorengo lehenengo aldian, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko ordezkariak jardungo du.

2.– Lehendakariari dagokio:

- a) Foroaren ordezkari itzulia.
- b) Foroaren osoko bilkuraren ohiko edo ezohiko deialdia egitea eta gai-zerrenda finkatzea.
- c) Foroaren osoko bilkuretako buru izatea, eztabaidak zuzentzea eta, oro har, bilkurak behar bezala garatzeko behar diren ahalmenak erabiltzea.
- d) Bozketetan gertatzen diren berdinketak bere kalitatezko botoarekin zuzentzea.
- e) Forokoak ez diren beste pertsona batzuk bilkuretara joateko baimena ematea, aztertu beharreko gaien izaera dela-eta komenigarritzat jotzen badu, betiere kideei ahalik eta informazio onena emateko, eta gerta daitezkeen bozketetan parte hartu gabe.
- f) Foroaren osoko bilkurak hartutako erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea.
- g) Foroaren osoko bilkuraren prestakuntza bultzatzea eta dagokion deialdian sartzeko 2.2 klausulan aipatutako urteko txostenak onartzea.
- h) Kide anitzeko organo bateko lehendakariak berezko dituen beste eginkizun guztiak betetzea.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokion Hitzarmen honetako alderdiak izendatzen duena izango da Foroaren idazkaria.

4.– Alderdiek Foroko lehendakariordea aukeratu ahal izango dute Hitzarmen hau sinatzean dituzten ordezkarien artean, lehendakaria ez dagoenean edo gaixorik dagoenean haren ordezkariak.

aritzeko. Ordezkapenak ez ditu aldatzen Lehendakartzari esleitutako eginkizunak, eta ez da argitaratu beharrik. Hala ere, ordezkotza bidez ematen diren egintzetan berariaz jasoko da inguruabar hori.

5.– Antolaketa.

1.– Foroak erabaki ahal izango du osaera murriztagoko mahai edo batzorde teknikoak eratzeari, kanpoko aholkularitza teknikoarekin, hala behar izanez gero, beren espezifikotasun edo konplexutasunagatik hala gomendatzen duten gaiak lantzeko, foroaren lana erraztuko duten txostenak, azterlanak edo beharrezko dokumentazioa prestatuz.

2.– Foroak batzorde teknikoak sortzea erabaki ahal izango du, lantzen ari den gai batek hala gomendatzen duten ezaugarri bereziak dituenean. Batzordeek osatu diren gaia prestatzeko, informazioa biltzeko eta, hala badagokio, azterketa teknikoa egiteko eginkizuna izango dute, baina erabakiak edo erabakiak Foroaren osoko bilkurak hartuko ditu beti.

3.– Mahaiak eta batzorde teknikoak sortzeko eta kentzeko erabakiak, bai eta esleitzen zaizkien eginkizunak ere, Foroaren osoko bilkuraren gehiengo hartuko dira, eta hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek ados egon beharko dute beti.

6.– Batzarraldien burutzea eta foruan hitzarmenen hartzea.

1.– Foroaren osoko bilkura, gutxienez eta modu arruntean, sei hilean behin bilduko da. Hitzarmen hau sinatzen duten alderdietako batek eskatuta ere egin ahal izango du, eta kideen % 25ek lehendakartzari hala eskatzen diotenean. Foroaren osoko bilkura egitea ere baliozkoa izango da, nahiz eta deialdirik egin ez, kide guztiak bertan egon eta aho batez hala erabakitzen badute. Arau bera aplikatuko da gai-zerrendan sartu ez den gai bat aztertzeko eta, hala badagokio, adosteko.

2.– Foroaren osoko bilkura balio osoz eratuta geratuko da gutxienez kideen erdiak bertan daudenean, baldin eta horien artean lehendakaria eta idazkaria badaude.

3.– Lehendakariari eta idazkariari esleitutako eginkizunen arabera, Foroa eratu, deitu, bilkurak egin, erabakiak hartu eta aktak bidali ahal izango dira, aurrez aurre zein urrutitik, eta urrutitik parte hartzeko aukera ematen duten baliabide telematikoak bermatu beharko dira.

4.– Foroaren beraren funtsa da bere lana inolako bozketaren menpe jartzea, baina bozketaren egokitasuna kontuan hartuz gero, Foroak berak ezarri ahal izango du bere eraketan eta bere funtzionamendu-araudi zehatzaz hornitzaerakoan. Nolanahi ere, erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soiluz hartuko dira.

5.– Foroaren osoko bilkuraren eztabaidak isilpekoak izango dira, bestelako erabakirekin ezean.

6.– Bilkura bakoitzaren akta egingo da, eta, bertan, bertaratutako kideak adieraziko dira, bai eta bilera non eta noiz egin den, puntu bakoitzean izandako egoeraren laburpena, izandako bozketen forma eta emaitzak eta hartutako erabakien edukia ere. Aktak Idazkaritzak sinatuko ditu, lehendakariaren oniritziarekin, eta bilkuran bertan edo hurrengoan onartuko dira.

7.– Hitzarmen honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean indarraldi eta iraungitze erregimenari buruz xedatutakoa aplikatuko da.

Hitzarmen hau sinatzen denetik lau urteko epean jarriko da indarrean, eta beste lau urtez luzatu ahal izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera. Luzapena itundutako hasierako epea amaitu aurretik sinatu beharko da.

Hitzarmen honen indarraldia Foroaren indarraldiari lotuta egongo da, eta hitzarmena amaitzeko arrazoi nagusiak honako hauek izango dira:

- i) Edozein klausula ez betetzea.
- ii) Indarraldia betetzea.
- iii) Alderdi guztien arteko adostasuna.
- iv) Foroa bera desegitea.

Alderdietako batek hitzarmen honetan bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak eskubidea izango du hitzarmena zorrotz betetzeko eskatzeko, edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko eta, hala badagokio, eragindako kalte-galerak eskatzeko. Hitzarmena suntsiarazten bada, alderdiek zehaztuko dute zer baldintza bete behar diren hitzarmen honetatik eratorritako betebeharrak amaitzeko, baldin eta betearazten ari badira.

7.– Izaera, araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Hitzarmen hau 40/2015 Legearen 47.2.c) artikulua babesean formalizatzen da administrazio publiko baten eta zuzenbide pribatuko subjektu baten artean, azaltzen dutenean deskribatu den helburu komuna gauzatzeko.

Foroak ebatziko ditu hitzarmen honen interpretazio- eta betearazpen-arazoak, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira auzigaiak.

8.– Finantzaketa.

Hitzarmen honek ez die finantza-ekarpenei buruzko konpromisorik hartzen alderdiei, eta beren baliabideekin hartuko dute beren gain hitzarmenaren xede diren jarduerak gauzatzeko ardura.

9.– Jabetza eta konfidentzialtasuna.

Hitzarmen honen arabera egindako lanen jabetza alderdi bakoitzari dagokio, egin dituzten ekarpenen arabera.

Alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ahalik eta konfidentzialtasun handiena gordetzeko, eta, hitzarmena amaitu ondoren, hitzarmena indarrean egon den bitartean eskuratu ahal izan duten gainerako alderdiei buruzko informazio eta/edo dokumentazioari dagokionez, eta betebeharrak hori betearazten parte hartzen duten pertsona guztiek bete dezaten.

10.– Aldaketa.

Hitzarmen honetan edozein aldaketa, alterazio edo gehiketa egiteko, alderdi guztiek esanbidezko eta idatzizko akordioa sinatu beharko dute.

11.– Datuen babesa.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute datu pertsonalak babesteko araudian xedatutakoa betetzeko, hitzarmen honi lotutako jardueretan. Bereziki, konpromisoa hartzen dute datuak babes-

tearen arloan erantzukizun proaktiboaren eta pribatutasunaren ikuspegia hartzeko, eta araudian une bakoitzean aurreikusitako printzipioak eta betebeharrak errespetatzeko.

Era berean, alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du, bere jarduerekin zerikusia duten pertsonen edozein datu pertsonal (mugarik gabe, bere datu-basean sartutakoak barne) edo beste hirugarren batzuen berri gainerakoei eman aurretik, datu pertsonal horiek alderdi hartzaileari behar bezala jakinarazteko aplikagarriak izan daitezkeen baldintzak bete beharko dituela, legezko oinarri batean informazio- eta babes-betebeharrak barne, eta hartzaileak ez duela jarduketa gehigarririk egin beharko.

12.– Jakinarazpenak.

Alderdiek, hitzarmen hau betez, beren artean egiten dituzten komunikazioak idatziz egin ahal izango dira Alderdien Zuzendaritzara, bide elektronikoz edo bi alderdiek baliozkotasunez onartutako beste edozein bide erabiliz.

Alderdietako edozeinek helbidea aldatu ahal izango du edozein unetan jakinarazpenetarako, eta aldaketa hori posta ziurtatuaren bidez jakinaraziko dio beste alderdiari.

Eta adostasuna adierazteko, alderdiek agiri hau sinatu eta ezartzen dute, goian aipatutako tokian eta egunean.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Repsol Fundazioaren ahalordeduna,
ANTONIO CALÇADA DE SÁ.